

Beatriz Preciado

«Naturan ez dago feminitaterik eta maskulinitaterik»

Iraindua sentitu zen; *marimutilla*, *tortillera*, deitu zioten. Sexualitateaz, generoaz, gorputzaz mila galdera zituela New Yorkera abiatu zen. Han queer mugimenduaren erdi-erdian egokitu zen. Orain, Parisen, galdera berberen erantzunak aztarrikatzen segitzen du unibertsitateko irakasle eta ikasleekin batera.

AMAIA ALVAREZ

LIERNI ARRIETA

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: José Ramón Gómez

Duela gutxi hautsak harrotu ditu Thomas Beatie "gizon haurduna"ren egunkariko albisteak. Zergatik aztoratu da jendea?

[Pretsako orria eskura eman diogunean irribarre zabal-zabala atera zaió].

San Franciscoko lagun batek bere adiskide baten argazkiak bidali zizkidan, haurdun zegoen eta gero haurra izan zuen. Argazkia *Testo Yonqui* liburuan sartzea pentsatu nuen, baina Beatieren argazkiarekin jendeak nola erreakzionatu zuen ikusita ez sartzea erabaki nuen. Jendeak liburura joko zuen argazkia baino ez ikusteko, morbo erraza eragingo zuen.

Bada jendea uste duena gizon bakarra dagoela haurdun, alegia transexuala bakarra haurdun, baina San Franciscon adibidez, aita haurdunen komunitatea dago.

Beatieren gaiari helduta, oinarrizkoena azaldu beharko nuke gertaera hori ezagutzen ez dutentzat. Beatie, beste transexual asko bezala, transexual hormonatua da, baina obulutegiak mantendu ditu. Hormonak hartzeari uzten badio hilekoak izan ditzake eta umetokia erabil dezake haurdunaldirako.

Beatiek, beste transexual askok bezala, adierazten duena da ez diogula gorputzari begiratu behar jarraipen zorrotza duen sexuaren, generoaren eta sexualitatearen arteko bloke moduan. Beatieren gorputza ez da ez maskulinoa ez

femeninoa, potentzialitate ugari duen gorputza baizik, norbanakoarena bezalaxe. Zentzugabea da pentsatzea testosterona maskulinoa dela eta estrogenoa femeninoa, edo umetokia femeninoa. Umetokia hainbat gorputzetan dagoen organoa da eta orain arte kulturalki gorputz horiek femeninotzat hartu dira. Ezerk ez digu esaten umetokia berez eta historikoki femeninoa eta femeninoa baino ez denik. Beatieren haurdunaldia feminitatetik eta maskulinitatetik harago doa, amatasunetik eta aitatasunetik harago. *Testo Yonqui* liburuan teknoaitatasuna eta teknoamatasuna aipatu ditut. Hau da, baldintza teknologikoak daude tartean eta ez biologikoak soilik. Beatieren kasuan teknologia hori oso agerikoa da, baina haurdunaldi askotan dago. Esate baterako, intseminazio artifiziala ez zen asmatu transexualentzako, ezta homosexualentzako ere,

Nortasun agiria

Espainiako Burgosen jaio zen 1970ean. Filosofoa eta queer aktibista da. Orain, Frantzia, Université Paris VIII-n Generoaren Teoria eta Gorputzaren Historia Politikoa irakasten ditu. 2002an *Manifiesto contra-sexual. Prácticas subversivas de identidad sexual* liburua argitaratu zuen. Queer garaikideaz teorizatzeke ezinbestekotzat jo zuten lana. Berriki *Testo Yonqui* kaleratu du. Egitura politiko eta boterezkoek gorputzaren bizipenean nola eragiten duten aztertu du eta bere buruari testosterona emanda egin duen esperimendua kontatu du. *Teoría King Kong* (Virginie Despentes) itzuli du eta 12 urteko neska-mutil guztiei gomendatu die genero biolentziaren kontrako *kit* moduan.





Gorputz paristarra

“Bortizki ari da aldatzen Paris, politika kontserbadore beldurgarriekin. Arraza, klase eta sexualitatearen araberako banaketa oso gogorra da. Pribilegiatu senti naiteke, besterik gabe zuria naizelako eta goi mailako ikasketak ditudalako. Batzuetan ordea, ditudan lagunak ditudalako beste aldean sentitzen naiz. Sarkozy boterea hartu zuenean esan zuen 68ko kulturarekin amaitu nahi zuela, orduz geroztik pentsatu dut 68 berria iritsiko zaiola. Gorputz paristarra? Gorputz iraultzailea da”.

1970eko eta 1980ko hamarkadetatik aurrera, feminismoaren alorreko hainbat pentsalari hasi ziren ikertzen diskurtso zientifikoetan ageri ziren metaforak (generozkoak, arrazazkoak eta kolonialak). Hori batetik, eta bestetik Michel Foucault historialari eta filosofoaren eskutik, adibidez, teoria deseraikitzaileagoak agertu ziren. “Sexuaren egia” ekoizten duten prozesuak aztertu zituzten: gorputzak normalizatzen dituzten, maskulinitatea eta feminitatea kontzeptuak asmatzen dituzten, homosexualitatea eta heterosexualitatea asmatzen dituzten prozesuak ikertu zituzten.

Esate baterako, heterosexualitatea/homosexualitatea kontzeptuak XIX. mendearan bukatu ziren sexualitatea kontrolatzeko eta normalizatzeko, –horrek ez du esan nahi ordura arte sexu praktika aniztasunik ez zegoenik; bazegoen noski–.

70eko eta 80ko hamarkadetako analisi garrantzitsuenetakoa eta zeharo berria da –gero queer teoriak muturreraino eramango duena– jabetzea sexualitatea eta subjektu sexualak formazio historikoen eta irudikapen politikoen ondorio direla. Beraz, ez dago entitate naturalik, ez dago naturan homosexualiterik eta heterosexualiterik, ezta feminitaterik eta maskulinitaterik ere. Orain naturalizat ditugun subjektibitate horiek prozesu politiko eta teknologikoen eragindakoak dira.

Teknologiak galdetu didazu lehen. Bigarren Mundu Gerraz geroztiko teknologiak aztertu ditut. Teknologia horiek eta XIX. mendekoak oso desberdinak dira. XIX.ekoak kanpotik diziplina ezartzen zuten gauzak ziren: kartzela, eskola, ospitale psikiatrikoa, tortura, zigorroak... Arkitektura multzo horrek norbanakoa babesten zuen eta hainbat subjektibitate sortu: histerikoa, eroa, ume masturbatzailea, etxekoandrea... Bigarren Mundu Gerraz geroztiko teknologiak molekularrak dira, bizidunaren egituraren infiltratzen dira, gorputzarekin nahasten dira.

Pildora da, zalantzarik gabe, sexuak eta geneoak ulertzeko dugun eredu modu erradikalean aldatu duena.

nahiz eta askok hala uste. Pildora bezalaxe asmatu zen; familia zuri, heterosexual eta klase ertainekoentzat ugalketarekin lotutako ikerketak egiten ari zirela. Beraz, ugalketa sexualarekin zerikusia duten prozesu teknologiko horiek, zeinak sexua, generoa eta sexualitatea banatzen dituzten, gorputz guztietan ageri dira, ez anormalizat eta duintasunik gabekotzat hartzen ditugun gorputzetan soilik. Nire babesa eta esker ona luzatu nahi diet halako eraldaketa eta berrasmaketa prozesuetan ari diren transexualei.

Prozesu teknologikoa diozunean zer adierazi nahi duzu?

Sinetsi dugu gorputza eta sexualitatea naturalak, berezkoak direla, hala erakutsi digu tradizio historikoak. Identitate sexualaren, gorputzaren eta sexualitatearen nukleo gogorra irudikatzen da. Nukleo hori kultura eta eraldaketa teknologiko guztietatik banandua legoke.

Judith Butler

“Lehenengo aldiz eskolak ematen ikusitakoan pentsatu nuen ordura arte egindakoak bazuela zentzua. Pentsatu nuen egunen batean berak egiten zuenaren tankerako zerbait egin ahal izango nuela, modu xumean. Ezagutzen dudan pertsona sexienetakoa da”.

Nola eragin du bada pildorak?

Teknologia molekular eta biomolekularrek sexualitatearen kontrol eta normalizazioan nola eragin dutenaren adibide bat baino ez da pildorarena. Hormona koktela, estrogeno eta progesterona koktela besterik ez da, 1940ko hamarkadan asmatutakoa. 1960ko feminismoak, bitxia da, sexu askatasunerako tresna gisa onartu zuen.

Asko harritu ninduen, baina kontua da pildora laboratoriora sintetizatu zela, fundazio katoliko baten diru-laguntzari esker. Familia katoliko, klase ertaineko eta heterosexualek ugalketa programan ari ziren lanean. Ikerketan aurkitu zuten estrogeno eta progesterona konbinazioak ugalketarako baino, antisorgailu gisa balio zuen.

Amerikako Estatu Batuetan 1947an asmatutako lehen pildora hori Puerto Ricon probatu zuten. Teknika eugenesiko gisa erabili zuten, arraza beltzaren hazkundera murrizteko, beltz eta zurien familia estatubatuarrek purifikatu eta banatzeko. Niretzako ustekabea izan zen erabilera horren berri izatea. Jaiotzak kontrolatzeko 60ko talde feministen aldarrikapenak ezagutzen nituen; gorputzaren politizazioa, kontzientzia hartzea... eta pildorarekin egindakoa justu kontrako da. Erabilera psikiatrikoa –homosexualitate maskulinoa tratatu nahi zuten– eta eugenesikoa izan zituen.

AEBetako Osasun Sailak ez zuen baimenik eman lehen pildora komertzializatzeko hilekoak guztiz ezabatzen zituelako eta beraz emakume amerikarrak desfeminizatuko zituelako. Berriz ere gauza sinetsgaitza egin zuten. Lehen pildora hark %99ko eraginkortasuna zuen, alde batera utzi zuten eta hileko artifizialak eragiten zituen bigarren pildora asmatu zuten.

Zer adierazi nahi dut pildoraren historia honekin? Bada 1950eko urteetatik aurrera, jakinaren gainean abian jarri zela emakumeen gorputzaren kontrol hormonalak. Kurioski feminismoak sexu askatasun bidetzat hartu zuen pildora. Noski badituela sexu askatasunerako bideak, baina horrek ez du esan nahi ez dugunik hausnartu behar alor politiko, generozko eta arrazazkoei buruz.

Beraz, eta pildoraren adibidetik orokortasunera jauzi eginda, sexualitatearen bestelako konfigurazioaren aurrean gaude, Foucaultek XIX. mendean deskribatutako eredu diziplina ezartzailetik harago. Nik eredu farmakopornografikoa deitzen diot, kontrola ez delako kanpotikoa, arkitektonikoa, diziplinarioa, baizik eta molekularra, infiltratua, arina, nahi baduzue baita lagunkoia ere. Nik kontrol horri “pop” deitzen diot, “Mickey Mouse” kontrola, plazera eta askatasuna emango dizkigun konfiantzazko lagun gisa agertzen dena.

Eredu farmakopornografikoa aipatu duzu. Zer duzu esateko pornografiaz?

“Bollera”, “dyke”...

“Espainiatik alde egin aurretik *marimacho*, *tortillera*, *lesbiana*... deitu ninduten, aberrazio beldurgarri horiek guztiak. AEBetara joan nintzenean *bollera* hitza modan jarri zen Espainian eta hitz ederra iruditu zitzaidan, beste guztiarekin alderatuta. *Dyke* [bollera ingelesez], sexuaren aristokrazia izan da. Hala pentsatu izan dut: “*Dyke*, ezin naiteke hori baino gauza hobirik izan”. Hitz ederretan ederrena, alegia. Azken aldian, izendapen horiek trans-aren ikuspegitik begiratzea atsegin dut, hartu ditudan hormonengatik, transexualekin ditudan harremanengatik, nire gorputza ulertzen dudana moduagatik...”.



**gaztelupeko
HOTSAK**
Erratze 23
30093 GORRALDE
Tel: +34 963 750114
Fax: +34 963 750138
gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com





KARELEAN
50. Gelatik



MORAU TA AGOTAK
Kalamidadiak



THUNDERS EXPRESS / SIXTYSEXERS
SEWERGROOVES / SARRIS ROCK & ROLL TRIO
A 4 Split EP* | 10"



JOSERRA SENPERENA
Dardaren interpretazioa



GAINSBURG
GAINBEGIRATUZ



AZKEN HITZA

Gizon/emakume

“Genero biolentzia iruditzen zait nortasun agirian sexua edo generoa jarri beharra. Ekintza iraingarria, diziplinatzailea, normalizatzailea da”.

Teknika oso berria da pornografia, masa kulturatzat hartuta. Lehenengo aldiz masturbazioa kapitalaren ekoizpenerako produktu bihurtuko du pornografiak. Ideia hori oso berria da zeren XIX. mendean eta XX. mendearen erdira arte masturbazioa gaixotasuna zen, gaitz soziala, lanerako eta ugalketarako behar den energia alferrik galtzen baita masturbazioaren bidez. Norbera bere buruarentzako arrisku sexuala zen, “esku masturbatzailea” lotu beharreko deabrua zen.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, sexualitatearen kontrole-rako moduak zeharo aldatu ziren. Orduan kontua ez zen masturbazioa eragoztekoa baizik eta masturbazioa masa kultura bilakatzea.

...
Nik ez daukat erantzunik. Ez dakit zer gertatu den, nahiko nuke jakin. Beno, nik uste kapitalismoaren aldaketa dagoela, kapitalismoak nolabait gorputza, subjektibitatea eta sexualitatea produkzio bide gisa integratzen ditu. XIX. mendean eta XX. mendearen erdira arte sexualitatea kapitalaren etsaitzat hartu zen. XX. mendearen erditik aurrera kapitala jabetzen da sexualitatea etekin bihur daitekeela, gorputza, plazera, sexualitatea, baita generoa ere, kapital ekoizpenaren iturri berriak bihurtuko dira.

Madrilgo Chueca auzoarekin gertatu da hori, esate baterako.

Horixe bera. Alabaina, Chueca ezin duzu Disneyworld heterosexualarekin alderatu. Jendea aztoratu egiten da Chueca ezagutzen duenean, uste duelako sexualitate homosexualak gheto baztertua izan behar duela, eta

beraz kapitaletik at egon behar duela. Inola-ko identitatek ez dio ihes egiten logika horri. Lehen uste zen bazterreko identitate batzuk bazirela kapitaletik kanpo geratzen zirenak. Noski ezetz. Identitate horiek ere sistema farmakopornografiko berberaren eta kapitalaren ondorio dira. Kontua da identitate oro normalizatze gaitasuna dagoela, bai bazterrekoak diruditen identitateak eta baita normalizatuagoak diruditenak ere.

Subjektibitateak prozesu politiko eta teknologikoen eragin dituztela eta deseraiki behar direla diozu. Zer gertatuko da orduan borroka identitarioekin? Kolektibo minorizatuak? Feminismoa subjektu politikorik gabe uzten baduzu armarik gabe gertatuko al da?

Bai zera. Inoiz ez dugu orain baino arma gehiago izan. Lehen genituenak armak ere ez ziren. Feminismoaren subjektua emakumea zela genioen, eta ni adibidez, ezin izan naiz sekula feminismoaren subjektuarekin identifikatu, inoiz ezin izan dudalako nire burua emakumetzat hartu. Eta hortaz gain, bai feminismoaren diskurtsoek zein genero normalizazioaren diskurtsoek irainaren bidez baztertu ninduten: marimutila, lesbiana... Emakumearen eremutik baztertu ninduten. Emakumearen alor hori ere fikzio normalizatzailea zen.

Borrokarako armak galtzen ari garela diozu? Nik uste dut ezetz, guztiz kontrakoa. Konturatu gara fikzio horrek borroka politikorako beharrezkoak ziren identitateak, plazerak, gorputzak... baztertzeko zituela. Gainera, borroka feministaren subjektutzat hartu genuen emakume hori, zuria, heterosexuala eta klase ertainekoa baino ez zen —ez dakit egiatan existitzen den irudi idealizatu hori—.

Oposizio dialektikoa irudikatzen zen: emakume biktima/gizon zapaltzailea. Egoera askoz korapilatsuagoa da. Kontua ez da zapaldua/zapaltzailea dialektika. Gorputz, sexualitate eta subjektibitate anitzekin egin beharko dugu lan, emakume subjektuak bere barruan bildu ezin dituenekin. Feminista heterosexual asko iritzi honekin bat etor daiteke. Zeren guk uste genuenaren kontra, agian, emakume subjektua borroka politikorako arma ez da izan, eta beharbada gainera, feminismoak burutzeke duen iraultza eragotzi du. XXI. mendeko iraultza horixe da, emakume ez dela feminismoaren subjektua, feminismoaren subjektua etortzeko dago. Hori da behintzat nik espero dudana. ■

www.argaia.com/argaia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.